

Arratsalde on guztioi,

Lehenik eta behin, eskerrak eman nahi dizkizuegu hemen zaudeten guztioi prentsurreko honetara etortzeagatik. hemen, Baiko Pilotako 18 pilotariz osatutako talde bat da zuen aurrean gaur aurkezten dena: hemen gauden 17 eta covid-19aren ondorioz etorri ezin izan den beste bat. Talde honetatik, argi utzi nahi dugu enpresarekiko beti izan dugun jarrera: irekia eta elkarlanekoa; enpresarekin hitz egiteko eta era guztietako erabakiak negoziatzeko prest, jakitun baikara denok oso une zaila bizitzen ari garela eta egoera zaila bilakatu dela mundu guztiarentzat. Pilotariok atsekabe orokor bat bizitzen ari gara aspaldian enpresak gurekiko hartu dituen hainbat jokabiderek. Jokabide horiek, zuzendu beharrean, biderkatu egin dira azken hilabeteetan. Horrek guztiak ekarri gaitu hona, beti ezkutuan egon den egoera hori publikoki azaltzera.

Asegarce "desagertzen" denean hasten da dena. 2018ko abenduaren 28an, 26 urteren ondoren Asegarcek etapa berri bati ekingo ziola jakinarazi ziguten enpresatik mezu baten bidez. Ordura arteko *Asegarce*, *Bainet Sport* eta *Custom Sport* bezalako enpresak izen bakarrean biltzen zituen talde batean bilakatu zen, **BaikoTaldea**. Enpresa batek izena aldatzen badu edo gerente zein kudeatzaile berriak baditu, langileei alde aurretik jakinarazi behar zaiela uste dugu. Pilotarioi, aldiz, ez ziguten ezer azaldu. Izen aldaketa horretatik eta Jose Ramon Garai zuzendari nagusi berriaren izendapenetik aurrera hasi ginen pilotariak aurretik bizi edo ezagutu gabeko egoerak jasaten.

Behin testuingurua azalduta, jasan behar izan ditugun jokabide horietako batzuk azalduko ditugu, horretarako ere baikaude gaur hemen:

- Entrenamenduak: inoiz ez da pilotari bakoitzaren egoera pertsonala kontuan hartu. Enpresak Bilbon eta Beasainen ezarri zituen entrenamenduak prestatzaile fisiko berarekin. Pilotari askok, bakoitzaren herrian beren diruarekin entrenamendu pertsonalizatuak egiten dituzten prestatzaile fisikoak izan arren, horiek alde batera utzi eta Bilbora edo Beasainera mugitu behar izan zuten astean hirutan; errepidean eguneko orduak galduz eta, horri, bidaietan pilotutako nekea gehituz. Kirol ikuspegitik, ez dugu justifikazio logiko edo objektiborik aurkitzen. Beti ordaindu izan

ditugu gure dietistak, gure entrenatzaile pertsonalak, gure fisioak; azken batean, pilotari bezala hazteko eta kirol-emaitzarik onena bilatzeko ditugun baliabideak. Horiek guztiak eskura baditugu, eta, gainera, emaitza hobe bat lortzen laguntzen badigute, zergatik ezin dugu plangintza edo bide hori aurrera eraman? Erantzuna: **mesfidantza eta kontrola.**

- Entrenamenduen aurreko atal horri lotuta, inoiz bete ez duten beste promesa bat ere egin zitzaigun: "Etxetik 50 km-tik gorako distantziara egiten diren entrenamendu guztietan diru-ordaina jasoko genuela" esan ziguten. Diru hori ez dugu inoiz jaso.
- Hitz egin ezin duten horiek; adibidez, aurrekontratua dutenak. Bilbora edo Beasainera asteen hirutan joatera behartzen dituzte, etorkizunerako inolako bermerik gabe, soldata duinik gabe eta biharko egunerako prestatu behar dutela kontuan hartu gabe. Horrek guztiak ez die, ez pilotari, ezta gazteei ere onik egiten. Hori aldatu egin behar da. Pilotari batek pilotatik haratagoko bizitza ere prestatu behar du, ez baita beti pilotatik biziko. Gazteek beren epe luzerako etorkizuna prestatu behar dute.
- Kontratuak berritzeko orduan, José Ramón Garairekin izandako elkarrizketak oso zailak izan dira, errespetu falta garbiak tarteko. Horrez gain, pilotari batzuek aholkulari kualifikatu baten bidez negoziatzeko aukera hartu dutenean enpresak beti erakutsi die aholkulari horiek ez hartzeko erabakia. Zergatik ezin gaitu aholkulari batek ordezkatu? Zer beldur die enpresak?
- Eskakizun garrantzitsu bat: pilotarako eskusibotasun osoa. Gure artean badira urtean 23.000 € gordinetik beherako kontratuak dituzten kideak. Kontuan hartzen badugu autoaren, gasolinaren, takoentzako materialaren eta fisioterapeuten gastuak urtean 10.000 € ingurukoak direla, zer soldata geratzen da pilotari horien poltsikorako? 1.000 € hilean? Eta, gainera, ezin duzu osatu etorkizunean bideak ireki diezazkizukeen lan batekin? Ulertezina.
- Pilotariekin hitz egin gabe, **pilotarien eta kirol prentsaren arteko harremanak debekatu direla** azpimarratu nahi dugu. Guk, gure kontratuan, prentsa-buruak

baimena eman ezean, hedabide publiko bati adierazpenik ezin diogula egin dioen klausula bat sinatu behar izan genuen.

- Pilotariok jokatzeko ditugun partida berezietako plusak ere nahierara manipulatu dituzte. Horrekin batera, beste zigor batzuk ere jaso ditugu, hala nola soldataren % 20 arteko isunak jokatzeko kamiseta bat ahaztu izanagatik (giza akats bat), materialari buruzko adierazpenak egiteagatik (pilotak) eta abar.
- ERTETik atera ginenetik, jokatzeko ditugun partidetan gonbidapenak jasotzeko eskubidea ere kendu digute. Gonbidapen horiek, norgehiagoketara lagunduta joan ahal izateko edo bidean nahiz partidaren bertan gerta dakigukeen edozein ezbeharren aurrean (lesio bat, gaixotasun bat...) irtenbide bat izateko erabili izan ditugu pilotariok. Orain, zer egingo dugu?

Horiek dira enpresak bere pilotari batzuekiko izan dituen keinu txarrak ondoen laburbiltzen dituzten jarrera batzuk.

Eta, zer gertatu da martxotik hona? Martxoan, alarma-egoera ezarri zenean, ERTE bat eskatu behar zutela jakinarazi zigun enpresak. Behin ERTE hori onartuta, guk, legez, eskubidea dugu enpresak lan-agintaritzari aurkeztu zion txostena jasotzeko. Ez genuen txosten hori sekula ikusi, nahiz eta eskatu.

Hilabeteek aurrera egin ahala, Aspeko kideek beren enpresarekin akordio bat lortu zuten bitartean, guk ziurgabetasun egoera berarekin jarraitzen genuen. Egoera horretan, abokatu bat kontratatu eta idazki bat bidali genion enpresari, mesedez, bere egoera eta etorkizuneko asmoak azaltzeko eskatuz. Ez genuen erantzunik jaso.

Abokatu bat kontratatzea erabaki genuela ikusita, zer egin zuten enpresak? Bulegora banan-banan deitu gintuen ERTEaren irteera negoziatzeko. Gure erantzuna denok batera, kolektibo gisa, eta abokatu baten babesarekin joango ginela izan zen; baina betiere akordioetara heltzeko gure asmoa eta elkarlanerako jarrera mantenduz.

Horren aurrean, enpresaren erantzuna zorrotza izan zen: banakako bilerak bertan behera utzi, modu kolektiboan ez baikinen hartuak izango, eta ERTetik % 100ean ateratzea. Enpresak, pilotazaleari eta prentsari begira, ERTetik %100ean irtetze hori beren apustua izan zela saldu zuen. Baina, egia, kolektibo gisa eta abokatu batek ordezkatuta agertu ginenean, gurekin gehiago ez hitz egitea erabaki zutela da. Pilotariok gertatutakoaren bertsio hori kontatu ez genezan, Aimar Olaizola edo Mikel Urrutikoetxea ez zen beste edozein pilotari elkarrizketatzea debekatu zien enpresak kazetariei. Legez kanpoko zerbait; izan ere, gu, ERTEaren garai hartan langabezian geundenez, ez ginen enpresako langileak eta enpresak ezin zigun edozein kazetariren aurrean betorik jarri. Baina horrela egin zuen.

Horrez gain, ERTetik irten baino egun batzuk lehenago, José Ramón Garai pilotari batzuei deika hasi zen. Haiekin harremanetan jartzerakoan, pilotari taldeak zuen batasuna hausten saiatzen zen. Pilotari batzuek uko egin zioten kontratua negoziatzeari eta ez zela momentua esan zioten, aurrerago hitz egingo zutela. Erantzuna mehatxuzkoa izan zen, eta argi utzi zien berehala sinatzen ez zuenak bere etorkizuna jokoan izan zezakeela enpresan. Bi pilotarik jasotako proposamena sinatu zuten. Beste batzuek, proposamen ezberdinak izan zituzten arren, batasuna mantendu eta taldearekin zuten konpromisoa eustea erabaki zuten.

Iñaki Etchegoinek ez zuen kontratua berritu nahi izan eta, ondoren, enpresak Iker Arretxeri kontratua ez berritzea erabaki zuen. Egia esan, kirol arloari dagokionez, denok uler genezakeen erabakia. Ulertu ezin duguna enpresan 15 urte baino gehiagoko lan nekaezina egin duen Iker Arretxeri partida bat amaitu ondoren frontoiko atean bertan kontratua berrituko ez ziotela jakinaraztea da. Hori al da pilotan horrenbeste urte daramatzen pilotari batek merezi duen tratua? Eta, kontua errematatzeko, bere azken partidari bere kirol ibilbideari egin zitzaion omenaldia ASPE enpresak antolatu zuela esan beharra dago. Ez zen BAIKO enpresako ordezkari bakar bat ere egon bere agurreko partida horretan. Arretxek agur duin bat merezi zuen, omenaldi bat, PILOTARI GUZTIEK merezi duten bezala. Langile borrokatua eta lankide bikaina izan da.

Horren ondoren, guztion harridurarako, Iosu Eskirozi kontratua ez berritzea erabakitzen du enpresak. Bere azken partidua Promozioako Binakako finala izan zen eta, txapela irabazi ondoren, hori da erabakia. Pilotariok zur eta lur geratu ginen.

Bidegabekeria horren aurrean, gaur hemen gauden pilotari taldeak enpresarekin hitz egitea erabaki zuten. Talde honen bi ordezkari José Ramón Garai enpresako zuzendariarekin bildu ziren eta akordio batera iristeko borondatea adierazi zioten Iosu Eskirozi eta hurrengo egunetan berritu behar zuten pilotariei kontratua berritzeko aukera zabaltzeko nahiarekin batera. Bilera horretan, elkarren arteko akordio batera iristeko bidea eraiki zezan eskatu zitzaion enpresari. Hori posible izan zedin, talde honetako denok soldata jaisteko prest geundela ere adierazi zitzaion.

Enpresaren erantzuna, bilera egin eta 6 ordura, beste lankide bati, Victorri, kontratua ez zitzaiola berrituko jakinaraztea izan zen. Sinestezina. Nola definitu hau?

Pilotari horiekin gertatu dena amorragarria dela iruditzen zaigu. Inolako azalpen sendorik eman gabe kalean geratu dira, beti enpresaren alde aurpegia emateko prest egon diren profesional handi bi izan direnean. Enpresak enpresaren "ustezko" egoera ekonomiko zaila argudio gisa erabili duen arren, bi berritzeak, bai Eskirozena, bai Victorrena, kirolez kanpoko arrazoiengatik izan direla uste dugu. "Ustezko" egoera ekonomikoa zaila diogu; izan ere, garai berean diru kopuru handiko kontratuak sinatu dira, bi kontratu profesional gehiago egongo dira, eta enpresari bere egoera ekonomikoa erakusteko eskatu diogunean, beti ezezkoa jaso baitugu. Eskiroz eta Victor maila handia duten pilotariak dira eta, enpresak berritu ez baditu, beraiek taldearen alde egin zutelako dela uste dugu; hori guztia enpresaren mendekua izan da, ERTETik irteteko negoziazioan gertatu zen guztia dela eta.

Gertatzen ari den guztia ikusita, zein guraso egongo da horrenbeste ahalegin egiteko prest, bere seme edo alabari pilotak eskaintzen dion etorkizuna hori dela ikusita? Txapela irabazteak ere profesionaletan jarraituko duzula ziurtatzen ez dizunean, merezi al du norberaren etorkizuna jokoan jartzeak?

Horregatik guztiagatik, azken hilabeteetan pilotariok bizi izan duguna eta azken bi urteetan egoerak izan duen bilakaera kontatu beharra sentitu dugu. Errealitatea jasanezina da eta, pilotaren onerako, hau aldatzea nahi dugu.

- Jose Ramon Garai zuzendari nagusiari jarrera aldatzeko eskatzen diogu: langileekin gehiago komunika dadila, negoziatzeko prest egon dadila eta kirol-arloko tratuan zein tratu pertsonalean aldaketak egin ditzala.

- Era erabat bidegabean berriitu gabe geratu diren kideei baldintzarik gabeko babesaren eman nahi diegu.
- Ez gaude ados enpresak hainbat unetan jendaurrean azaldu duen bertsioarekin. Prentsaurreko honetan eta idazki honetan azaldu duguna da gertatu dena.
- Azkenik, azkenaldian hartutako zenbait erabaki birplanteatzeko eskatzen diogu enpresari.

Gure eskaerei entzungor egiten bazaie eta tratu bera jasotzen jarraitzen badugu, neurri zorrotzagoak hartu beharko ditugu, hala nola mobilizazio bat egiteko aukera.

Garai nahasi honek eta tratu iraingarri horiek pilotariak jasaten duten babesgabetasunari buruzko hausnarketa bat eragin digute. Horren aurrean, gure bidea egin eta hori jarraitzea erabaki dugu. Horretarako, pilotari profesionalen elkarte bat sortuko dugu, egungo pilotariak eta datozen urteetan etorriko direnak babesteko. Gure ustez, funtzionatzeko modua aldatu behar da, elkartu, eta pilota profesionalaren munduko subjekturik ahulena eta, aldi berean, garrantzitsuena babestu, PILOTARIA.

Azkenik, berriz ere, eskerrak eman nahi dizkiegu gaur hona hurbildu diren hedabideetako kide guztiei.

Eskerrik asko guztioi eta arratsalde on.